





Antony Gormley artista britainiarrek
New Yorkeko eraikin batean
jarritako eskultura,
Event horizon proiektuaren barruan.

NEWYORKNEWYORK.BLOGSPOT.COM

Suizidioa Azken tabua



■ Jon Torner

“Arazo filosofiko bakarra da benetan larria: suizidioa”, idatzi zuen Albert Camus (1913-1960) filosofo existentzialistak *Le Mythe de Sisyphe* (1942) izeneko saiakeran. Kristautasunak kondenatu egiten du, bere burua hiltzen duenak Jainkoaren nahiari uko egiten diolako –haren esku baitaude gure bizitza eta heriotza–. Emile Durkheim (1857-1917) frantziarrak zioen suizidioa fenomeno soziologikoa dela (*Le suicide : étude de sociologie*. 1897). Legedi batzuetan delitutzat jotzen da, zigortzerik ez dagoen arren.

Gaur egun, suizidio kasuen %95 inguru buru-nahasmenduekin loturik dagoela onartzen da. Bere buruaz beste egiten duen gizon kopurua emakumeena baino ia hiru bider handiagoa da eta gazteen artean goranzko joera sumatzen da. Erabakiaren atzean faktore biologiko, psikologiko eta sozialak daude. Bekatua. Errua. Beldurra. Azken tabua da suizidioa.

Gaiaren konplexutasuna nabarmendu digute Argitxu Noblia mediku anestesistak, Iñaki Gonzalez larrialdi zerbitzuetako kideak eta Blas Erkizia psikiatrak, eta prebentzioaren garrantziaz ohartarazi. Baita gaiari tentuz heltzeko eskatu ere, sentsazionalismoa saihestu eta errespetuz idazteko.

Erabaki konplexua, baina heldu beharrekoa

Hainbeste adar dituen gaiari nondik heldu? Argitxu Noblia (Angelu, 1942) mediku anestesistak jarri gaitu arrastoan: “Datuak bildu eta alderatu behar dira lehendabizi”. 1976an aurkeztu zuen berak *20 ans de suicides au Pays Basque* (1955-1975) izeneko memoria, Tours hiriko (Frantzia) Institute National de Medicine Agricole unibertsitatean, medikuntza diploma eskuratu ahal izateko. “Nire aitabitxik proposatuta aukeratu nuen suizidioaren gaia”, azaldu digu. “Medikua zen Baionako ospitalean eta berak zioen Euskal Herrian bazirela suizidioak. Ez zuen ulertzen zergatik hartzen duen hainbeste jendeak erabaki hori. Gainera, esaten zuen gehienak euskaldunak zirela, ez Baionako burgesak-eta. Nik ez nuen sinesten aitabitxik zioena, Euskal Herrian suizidio gehiago zegoela, eta egiaztatu egin nahi izan nuen”.

Horretarako ospitalera jo zuen Nobliak, “baina han ez da ezer egiten ahal”, esan digu: “Ez dute hildakoen daturik (lanbidea...), ezta haien senideenik ere. Nortzuk duten informazio hori? Poliziek. Jasotako datuak auzitegi-etara bidaltzen dituzte. Baionako epaitegira joan eta hildakoen fitxetan begira hasi nintzen, zer aurkitu nahi nuen ziur jakin gabe. 450 bat laguni buruzko datu-basea osatu nuen, suizidio kasuak izan zitezkeelakoan. Nire datuak mediku ezagun batzuek zituztenekin alderatu nituen, eta konturatu nintzen kopurua ia iguala zela, baina ez zirela pertsona berak. Heriotza-ziurtagirietan ‘bihotza gelditzea’ jartzen du. Bihotza beti gelditzen da, baina nola? Armekin gertatuz gero, istriputzat hartzen zen... Jen-

deak, hainbat arrazoi medio, ez zituen suizidioak aitortzen: eliza, aseguru-etxeak, bizitza polizak... Egia esan, nik ez nuen suizidio kopuru izugarri handia topatu, ez behintzat beste leku batzuetan baino handiagoa”.

EUSKAL HERRIKO ETA NAZIOARTEKO DATUAK

2008an 223 pertsona suizidatu ziren Hego Euskal Herrian, datu ofizialen arabera: 28 Araban, 88 Bizkaian, 55 Gipuzkoan eta 52 Nafarroan. Frantziako Estatuan, Pirinio Atlantikoen departamenduan –haren parte dira Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa–, urtean 97 pertsonak egin zuen bere buruaz beste 2001-2003 artean. Kasu guztietan, gizonezkoen kopurua nabarmen handiagoa da: Hego Euskal Herrian 162 gizon eta 61 emakume suizidatu ziren, eta Pirinio Atlantikoetan 71 gizon eta 26 emakume (ikus 1. taula). Frantziako CépiDC epidemiologia zentroak plazaratutako datuen arabera, 2007an 69 gizon eta 17 emakume suizidatu ziren Ipar Euskal Herrian, baina datuak ez dira oso zehatzak ⁽¹⁾.

Argitxu Nobliak 1976an aurkeztu zuen *20 ans de suicides au Pays Basque* tesian ere, datuek gauza bera uzten dute agerian. Orotara 448 pertsona suizidatu ziren 1955-1975 artean Lapurdin eta Nafarroa Beherean ⁽²⁾, 324 gizon eta 124 emakume. Arrazoiak zein izan daitekeen galdetzean, Nobliak esan digu, oro har, bizitzan zehar gizona “pauso bat urrunago” joan ohi dela beti, eta “arrisku gehiago” hartzen

(1) Ipar Euskal Herriari dagozkien CépiDC zentroaren 2007ko datuetan, 25 eta 59 urte arteko gizonak soilik hartu dira aintzat, zonalde geografikoak eta maila sozio-profesionalak bereizi gabe.

(2) Argitxu Nobliak Baionako Auzitegiko dokumentuetan oinarrituta osatu zuen bere tesia. Lapurdi eta Nafarroa Behereko datuak gordetzen dituzte han. Zuberoakoak, aldiz, Paueko Auzitegian daude.

1.1. Suizidioa Hego Euskal Herrian (2008)

	Heriotza kopurua	Suizidio kopurua	100.000 biztanleko
ARABA	2.412	28	9,04
Emakumeak	1.135	6	3,86
Gizonak	1.277	22	14,25
BIZKAIA	10.752	88	7,68
Emakumeak	5.184	29	4,91
Gizonak	5.568	59	10,61
GIPUZKOA	6.269	55	7,85
Emakumeak	2.999	10	2,81
Gizonak	3.270	45	13,06
NAFARROA	5.292	52	8,38
Emakumeak	2.566	16	5,16
Gizonak	2.726	36	11,60

ITURRIAK: EUSTAT, INE

1.2. Suizidioa Pirinio Atlantikoetan (2001-2003)

	Suizidio kopuruaren batez-bestekoa urtean	Urteko heriotza kopuruaren gaineko ehunekoa
Pirinio Atlantikoak	97	%1,5
Emakumeak	26	%0,8
Gizonak	71	%2,2

ITURRIA: INSERM CÉPIDC

dituela (autoan, mendian...). Inpulsiboagoa da. “Emakumea, aldiz, garai hartan bederen, ez zen etxetik hainbeste ateratzen, umeak zaintzen zituen... Gizona ez zen hain lotua sentitzen, eta orain ere ez”.

Ikuspegi paretsua du Carmen Tejedor psikiatra espainiarrak: “Suizidioetan gizonen eta emakumeen artean dagoen desberdintasunaren gakoa eragile genetiko eta biologikoetan

dago. Testosteronak gizonak historikoki ehiztari bihurtu ditu, oldarkorrangoak dira eta erabakiak zirt edo zart hartzen dituzte”. Eragile soziokultural eta moralak gehitu behar zaizkio horri: “Gizonen suizidioa ohore kontua balitz bezala hartzen da; ez da gauza bera gertatzen emakumeen kasuan. Haren heriotza ez da onartzen eta pentsatzen da suizidioa hautatzen duena ama txarra dela”. Bere buruaz beste egin duen gizon kopurua emakumeena halako

hiru da, baina saiatu, hiru bider emakume gehiago saiatzen da suizidatzen, Tejedorren iriziz, “jasaten duten presioa hiru bider handiagoa delako”.⁽³⁾

Generoa da suizidio-tasen taula eta grafikoetan estatistika institutuek nabarmentzen duten aldagaietako bat. Adin-taldea da bestea. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako datuei begiratuta (2.1. taula), konturatu gara, kopuru zehatzak eskuan, aldeak ez direla oso handiak⁽⁴⁾. Pirinio Atlantikoetan gauza bera gertatzen da (2.2. taula). Dena den, gizonen suizidio guztietatik ia herena (71tik 22), 65 urtetik gorakoei dagokie.

Pasa den martxoan, Medikuntza Legalaren Euskal Institutuak 2010eko suizidio datuak aurkeztu zituen. Hedabideek beherakada nabarmendu zuten: “Suizidioak %20 jaitsi dira EAEn 2009arekin alderatuta. 125 lagunek egin zuten beren buruaz beste iaz eta 158k duela bi urte”⁽⁵⁾. 2008an 171 pertsona suizidatu ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Europako herrialde gehientsuenetan ere, Frantzia eta Espainian esaterako (3. grafikoak), suizidio-tasak beheranzko joera –edo mantentzekoa– erakusten du azken urteetan (2005-2006 arteko datuen arabera), baina alderantzizko joera agertu da 15-25 urte bitarteko gazteen artean. Txosten batzuek 15 urtetik beherako kasuak ere jaso dituzte⁽⁶⁾.

GAZTEEN KOPURUA GORA

Adituak bat datoz: gazteen artean suizidio kasuek gora egin dute. Igoera zenbatekoa izan den zehaztean, hala ere, ehunekoen saltsa-maltea tentuz erabili behar da. Aurtengo martxoan, adibidez, Sevillan (Espainia) egindako jardunaldi batzuetan, Jose Giner Psikiatria Biologikoko eta Buruko Osasuneko Fundazioko

presidenteak adierazi zuen 2010ean suizidioa izan zela gazteen artean heriotza gehien eragin zituen, trafiko istripuek baino gehiago. Bospasei hilabete lehenago, baina, Bartzelonan (Herrialde Katalanak) egindako beste jardunaldi batzuetan, gazteen artean suizidioak beti gertatu direla azaldu zuen, baina kasu horiei buruz gutxi hitz egin dela, datuak ezkutuan gorde direlako. Europako Batzordeak ere nerabeen artean suizidioek gora egin dutela nabarmendu izan du bere txostenetan, zifra zehatzik eman gabe, ordea.

Faktoreak

Zerk eramaten du 15-25 urteko gaztea bere buruaz beste egiteko erabakia hartzera? Eran-tzuna ematea ez da samurra, elkarren artean loturik dauden faktore askok dutelako eragina, gainerako adin-multzoetan gertatzen den moduan. Porrot gisa barneratzen den gertaera batek eragindako frustrazioa, depresioa, naharmendu bipolarra, antsietatea, eskizofrenia... Osasunerako Mundu Erakundearen (OME) arabera, suizidio kasu gehienetan atzean patologia mental bat dago, buruko osasun arazo bat. Bikote hausturak, etxeko egoera, ikastetxekoa, ume edo gaztaroan jasandako esperientzia bortitz bat eta, adinean aurrerago eginda, lan-bal-dintzak, pobrezia, arazo juridikoak... hamaika faktorek elikatu ditzakete patologia horiek.

Kontuan izan behar da, gainera, drogen eta alkoholaren kontsumoak eragin handia duela portaera suizidetan. Larrialdi zerbitzuetan lan egiten duen Iñaki Gonzalezek –ez da hori bere benetako izena– esan digu azalpen zientifikoa duela horrek: “Drogek plazeraren neurotransmisoreak ahultzen dituzte; pertsona batzuk plazera ez sentitzera hel daitezke”. Lanean daramatzan urteek ematen duten esperientzian oinarrituta gazteen suizidioek ez dutela gora egin adierazi digu, berari bederen ez zaiola

(3) *Gizonek beraien buruaz beste egiten dute, emakumeak saiatu egiten dira* artikulutik (<http://blog.gizonduz.euskadi.net>, 2010-10-24)

(4) Espainiako Estatistika Institutuaren arabera, 2008an 15 urtetik beherako inork ez zuen bere buruaz beste egin Hego Euskal Herrian.

(5) Heriotza ez naturalei buruzko datu-dantzan, auto-istripuetan hildako pertsonen zifrekin alderatu dute hainbat hedabidek suizidio-tasa. Batez bestekoak interpretatzean, faktore ugari izan behar da kontuan, auto-istripuak izugarri gutxitu direla, adibidez.

(6) Europako herrialdeetan beheranzko joera orokorra dela esan dugu. Kontuan izan behar da, hala ere, zonalde batzuetan, Ekialdeko herrialdeetan bereziki, suizidio-tasak batez bestekoa baino altuagoak direla. Bestalde, Greziako kopuru baxuez hitz egitean, aintzat hartu behar da arrazoi erlijiosoengatik (eliza ortodoxoa) ez dituztela suizidioak deklaritzen. Hain justu, analistek adierazi dute krisia dela-eta suizidio kopuruak nabarmen egin duela gora herrialde horretan.

2.1. Suizidioak, adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2008 (Hego Euskal Herria)

Adina	Gizonak	Emakumeak	Guztira
< 20	3	1	4
20-29	13	4	17
30-39	24	14	38
40-49	32	8	40
50-59	32	10	42
60-69	14	7	21
70-79	27	10	37
80-89	16	6	22
> 90	1	1	2
Guztira	162	61	223

ITURRIAK: EUSTAT ETA INE

2.2. Suizidioak, adin taldearen eta sexuaren arabera. 2001-2003 (Pirinio Atlantikoak)

Suizidio kopuruaren batez-bestekoa urtean; eta urteko heriotza kopuruaren gaineko ehunekoa.

Adina	Gizonak	Emakumeak	Guztira
15-24	7 (%18,1)	2 (%25)	9
25-34	10 (%22,7)	1 (%4,3)	11
35-44	13 (%14,4)	5 (%10,4)	18
45-54	10 (%4,8)	7 (%6,6)	17
55-64	9 (%3,0)	4 (%2,7)	13
> 65	22 (%0,9)	7 (%0,2)	29
Guztira	71 (%2,2)	26 (%0,8)	97


ITURRIA: INSERM CÉPIDC

aurreko urteetan baino kasu gehiago artatzea egokitu. Faktoreez mintzatzean, azpi-munduak aipatu ditu Gonzalezek, drogarena adibidez, edo prostituzioarena. Eta gai horrekin nolabait loturik, immigrazioa. Ez da, noski, soilik pertsona gazteez ari: “Deslokalizazio arazoa pairatzen dute batzuek, ez daukate lagunik, mafien

atzaparretan erori dira... Euskal Herrian ere ikusten dugu errealitate hori”.


Argitxu Nobliak bestelako azalpen bat eman digu garai bateko eta gaur egungo gazteen arteko suizidio kopuruaren aldeaz galde-tzean: “Lehen Ipar Euskal Herriko gazteak

3.1. Suizidio-tasa Frantzian (100.000 biztanleko). 1950-2006



ITURRIA: OME

3.2. Suizidio-tasa Espainian (100.000 biztanleko). 1950-2005



ITURRIA: OME

Herrialde guztietako datuak webgune honetan: http://www.who.int/mental_health/prevention/suicide/suicideprevent/en

Ameriketara joaten ziren bizimodu oparoago baten esperantzan. Mugitu egiten ziren, arrazoiak baitzituzten horretarako. Orain, aldiz, etxean geratzen dira. Telebista piztu eta beste lekuetan egoera antzekoa dela ikusten dute. Ez dute irteteko motiborik. ‘Norat joango naiz ba?’, galdetzen dute”. Galdera horrek agerian jartzen du adituek maiz aipatzen duten blokeo edo noraez sentipena. “Nerabeak euren beldurrek itsututa” bizi dira, esan digu Blas Erkizia psikiatra beasaindarrak. “Gazteak galdurik daude”, dio Enrique Rojas *Estudios sobre el suicidio* (Suizidioari buruzko azterlanak) liburuaren egileak ⁽⁷⁾: “Albiste bonbardaketa etengabea pairatzen dute, eskaerak, exijentziak... eta geroz eta irizpide gutxiagorekin, gainera.

Informazio piloa dago, baina formazio gutxi. Ideia eta kontzeptu argiak falta dira, inguruan gertatzen ari dena ulertzeko lagungarri izan daitezkeenak”.

Prebentzioan eragin beharra

Gazteen artean suizidioa saihesteko hainbat aholku eman ditu Osasunerako Mundu Erakundeak (OME): bizitzarako gaitasunen prestakuntza jasotzea, euren bizitzan gurasoen partehartzea sustatzea, alkoholaren kontsumoa gazte garaian gutxitzea eta baliabide hilgarriak—suzko armak, pestizidak eta lasaigarriak—eskuratzeko aukera murriztea ⁽⁸⁾. Arriskuak identifikatzea garrantzitsua dela diote adituek, izan ikastetxean, familian zein koadrilan, egoe-

(7) *Epidemia de suicidios entre los jóvenes* artikulutik (*El País*, 2010-03-19).

(8) *Azken urratsa* artikulutik (Lierni Alkorta/Ainhua Oiartzabal. *Berria*, 2010-10-24).



DANI BLANCO

“**G**ai oso konplexua da, ez da politikoki zuzena. Bakoitzak norberarentzat hartzen du: ‘Berari gertatu bazaio, zergatik niri ez?’”

ARGITXU NOBLIA

rari aurre egiterako orduan eraginkortasun handiagoz jokatzeko aukera emango liekeelako mediku eta psikiatrei batetik, eta gazte horien inguruan dauden agenteei, bestetik: irakasleei, gizarte eragileei, agintariei...

Nobliaren ustez, dena den, zaila da behar bezala prestatuta egotea. “Prebentzio kontuetan ez da ezer egiten. Irakasleak ez daude

prestatuak”. Eurak soilik ez. “Ni medikua naiz, eta hala ere ez nago prestatuta”. Iñaki Gonzalezek dio gauza asko hobetu daitezkeen arren, geroz eta baliabide gehiago daudela. Egoera konplexua ei da: “Zaila da osasun zerbitzuetara jotzea adiskide ala senide bat gaizki dagoela salatzea. Bada beste kontu bat. Epailearengana zuzendu zaitezke eta zure bikote, seme-alaba edo dena delakoarentzat nahi gabeko lekualdatzea eskatu nortasun nahasmendua argudiatuta, pertsona hori arriskutsua delako beste pertsonentzat zein bere buruarentzat. Ospitalera eraman eta han azterketa psikiatrikoa egiten zaio. Pertsona batentzat oso gogorra da, ordea, bere senarra edo seme-alabak anbulantzia psikiatriko batean osasun zentro batera nola daramaten ikustea, atzetik Ertzaianak doazela. Benetan desatsegina da”.

Ertzainekin eta gainerako agenteekin lankidetzan aritzen al diren galdetu diogu Gonzalezzi. “Bakoitzak badaki zer egin behar duen”, erantzun digu. “Dantza-pista berean gabiltza denok, baina soltean. Ertzainek eta udaltzainek guk bezainbeste gauza ikusten dituzte, euren lanak karga emozional handia du. Batzuetan besteen babesa beharrezkoa duzu, hemen ez dago super-heroirik. Zaintzaileak zaintzea oso garrantzitsua da, gauza gogorrei egin behar diegulako aurre”. Prebentzioa guztioi dagokigun zerbait dela dio Nobliak, “hainbeste arrazoi egon baitaitezke pertsona bat erabaki hori hartzera eramateko...”.

OMEren arabera “suizidio guztiak ezin dira saihestu, baina gehienak bai”. Arriskuak murriztu ditzaketen neurrietako batzuk dira: suizidatzeko bitartekoak eskuratzeko aukera murriztea; buru-nahasmenduak dituzten pertsonak artatzea, bereziki depresioa, alkoholismoa edo eskizofrenia pairatzen dutenak; saiakeraren bat egin duten pazienteen jarraipena egitea; lehen mailako osasun-arretako profesionalak (etxe-medikuak) prestatzea; eta hedabideetan gaiaren inguruko tratamendu ardura-tsua sustatzea (ikus *Kazetarienezako gomendioak* koadroa).

Kazetarienezako gomendioak

Suizidioaren gaiari heltzen dioten kazetariak, arazoaren konplexutasuna dela-eta, hainbat zalantzari egin behar izaten diote aurre. Laguntza gisa, erakunde batzuek gomendio-zerrendak plazaratzen dituzte. Osasunerako Mundu Erakundearen (OME) arabera, hedabideek tentuz jokatu behar dute, suizidio kasuak txarto tratatzeak –“publizitatea egi-teak”– suizidio gehiago eragin ditzakeelako. Besteren artean, datu esanguratsuak barneko orrialdeetan soilik aurkezteko gomendatzen du, laguntza-erakundeei buruzko datuak emateko, argazkiak eta suizidio oharrak ez argitaratzeko, arrazoi sinplistarik ez emateko, errudunik ez izendatzeko, suizidatzeko moduen inguruko xehetasunik ez emateko eta, oro har, sentsazionalismoa alboratzeko. Aholku horiekin bat egiten du Britainia Handiko Media Ethics Charity PressWise-k, hedabideen jarduna kontrolatzen duen erakunde independenteak. Keith Hawton eta Kathryn Williams Oxfordeko Unibertsitateko Psikiatria Saileko kideek egindako ikerketa du abiapuntu PressWisek: “Bi irakasleek uko egiten diote suizidioari buruzko aipamen oro debekatzeari, batzuek proposatu duten moduan, eta ideia bat nabarmendu dute: suizidioari buruzko ikuspegi arduratsuak bizi-tzak salba ditzake”. Zentsura eta desinforma-

zioa alferrikakoak direla uste du erakunde britainiarrak. OMEk bezala, hizkuntza, irudi eta titulu sentsazionalistatik ez erabiltzeko gomendatzen du, senideen mina errespetatzea funtsezkoa delako. Suizidatzeko moduei buruzko xehetasun gehiegi ez emateko ere azpimarratzen du, imitazioa bultzatzea ez delako. Eta espekulazioa ekiditeko dio, bereziki pertsona ezagunen kasuetan.

Erakunde horren arabera, “sarri buru-nahasmendu batekin loturik dagoen arazo konplexua” da suizidioa: “Ez da faktore bakarraren ondorioa, ez da arazo zehatz bati ematen zaion konponbide erraza”. Mitoak gezurtatu egin behar direla gomendatzen du, hala nola, suizidatzeko asmoa agertzen duten pertsonen ez dutela sekula euren buruaz beste egiten, edo suizidek hiltzeko erabaki irmoa dutela. Gai zabalago bati ere heltzen dio: “Testuingurua aintzat hartu behar da. Jendea instituzioen zaintzapean dagoela suizidatzen denean –ospitalean, atxilotze prebentiboan, espetxean...– haien heriotzak kontrol eta zainketa mailari buruzko galdera garrantzitsuak planteatzen ditzake. Susmoak ikertzeak interes publikoari erantzuten dio”.

Informazio gehiago:

www.presswise.org.uk/health

ERRUDUNTASUNA

Gonzalezek dio suizidioa naturala denaren logikatik kanpo dagoela eta horregatik kostatzen zaigula hainbeste ulertzea: “Ez da naturala semea aita baino lehen hiltzea, eta gainera suizidatu egin bada... ‘Errua nirea izan da’, pentsatuko du aita horrek. Kalte egiten baitiogu geure buruari, hurkoaren minaren erantzule eginez. ‘Zer egin dut gaizki?’. Gurasoek ez diete euren buruei galdetzen ‘zerbait gaizki egin ote dugu?’. Ez, ziur dira zerbait txarto egin

dutela, eta hori zer den jakin nahi dute, nahiz eta gertatutakoak agian beraiekin zerikusirik ez duen. Zama hori bizkar gainetik kendu behar zaie; ardura norberarena da”. Bere buruaz beste egin duen pertsonaren hurbileko jendearen ohikoa da errudun sentitzea. “‘Aizue, erabakia berea izan da’, esaten diegu guk”, azaldu digu Blas Erkiziak.

Portaera suizida argitu dezaketen faktoreen artean, familia barneko aurrekariak ere aipatzen dituzte adituek. Argitxu Nobliak dioenez,

“**Z**oriontsu izateko gai dena ez da suizidatuko. Arazoa da ez digutela erakutsi zoriontsu izaten. Gizarte hau gaixo dago, antinaturala da. Eta gizarte antinaturalak ondorio antinaturalak ditu”

IÑAKI GONZALEZ

1976an plazaratutako ikerketaren ondorioetako bat zen suizidioak ez duela loturarik familia marka edo geneekin, ezta “euskal arrazarekin” ere. Inguruan bizi dugunak etorkizunean eragina izan dezake gugan, baina gezurra da suizidiorako joera heredatu egiten denik. Beste kontu bat da suizidioen %30-40 inguru genetikak argitu dezakeela, serotonina izeneko neurotransmisoreak bereziki. Serotoninak eragin handia du nerbio-sisteman, gizakiaren gogoaldarteak baldintzatuz. Lasaigarria eta antidepresiboa da. Serotonina maila baxua izateak lotura du zenbait patologiarekin: depresioa, antsietatea, insomnioa, eskizofrenia, portaera erasokorra... Depresioaren aurkako botika askok serotonina kopurua igotzen laguntzen du eta, zeharka, kasu batzuetan bederen, ideia suizidei aurre hartzen.

IDEIA APURKA-APURKA GORPUZTEN DA

“Suizidioa erabaki bat da, eta ondorioz, errespetagarria”, dio Blas Erkiziak. “Ihes egiteko modua da”, uste du Gonzalezek, “koldarra ala ez, horiek balore judizioak dira”. Berari ere “erabaki guztiz errespetagarria” iruditzen zaio, “beti ere, bere buruaz beste egin duenak kontzientzia gradu ona baldin badu, zeren eta buru nahas-menduek eragindako ekintza izan bada...”. Dioenez, pertsona batzuek “eroaldi batean” suizidatu daitezke, “baina beste batzuk oso kontziente dira, badakite zertan dabilzan”. Lluís Maria Xirinacs politikari, idazle, pentsalari eta erlijioso

kataluniarraren kasua jarri digu Erkiziak adibide. Trantsizio garaian senatari izandakoa, Kataluniaren independentziaren alde egin zuen lan Xirinacsek (Bartzelona, 1932 - Ripollés, 2007). 2002ko irailean diskurtso polemikoa eman zuen Bartzelonan: “Ozen esango dut, polizia eta epaileek entzuteko moduan. Espainiako Estatuaren etsaitzat hartzen dut nire burua, eta ETaren eta Batasunaren lagun”. 2007ko abuztuaren 11n bere gorpua baso batean aurkitu zuten, eta bost egun lehenago idatzi zituen gutun bi Bartzelonan zuen bulegoan. Horietako batean zioen erabateko ahalmenarekin hartzen zuela basora joateko erabakia, azken egunak bakardadean eta isiltasunean pasa nahi zituelako. “Zoriontsu egin nahi banauzue, ez bila etorri, faborez”, idatzi zuen. Bigarren gutunean “Espainiak okupatutako Herrialde Katalanak” zituen hizpide. Heriotzaren berri izan eta denbora gutxira, *Avui* egunkariak Xirinacsek idatzitako *Cultura de mort* artikulua plazaratu zuen. Senatari ohiak libreki hiltzeko eskubidearen alde egiten zuen idatzian ⁽⁹⁾.


Bai Noblia baita Gonzalezen hitzetan ere, suizidatzeko ideia apurka-apurka gorpuzten da norberaren barruan. “Kasu batzuetan bat-batekoagoa da”, dio Gonzalezek, “baina beste askok lotu beharreko guztiak lotu ostein hartzen dute erabakia; suizidioa ez da soilik erokeriak bultzatutako ekintza bat”. Bestalde, Osasunerako Mundu Erakundeak ohartarazi du suizidio kasu gehienetan aurrez abisuren bat izan dela: “Pertsona ugarik euren asmoen gaineko abisu argiak ematen dituzte. Hortaz, autolesio mehatxu guztiak aintzat hartu behar dira. Gainera, euren buruaz beste egiten saiatzen diren pertsona gehienak anibalenteak dira eta ez dute heriotza soilik bilatzen”. Alegia, aldi berean bizi dituzte emozio edo sentimendu kontrajarriak.

Suizidio saiakerak

Suizidio saiakerei arreta eskaini behar zaiela diote adituek, horietako %10ek suizidioa burutuko dutelako. Frantzian, osasun zerbitzuek 195.000 suizidio saiakera artatu zituzten 2002an. Oharkabeen pasa zirenak gehituta,

(9) *Un any sense Xirinacs* artikulutik (www.vilaweb.cat, 2008-08-11)

Suizidio-tasak 100.000 pertsonako (datu berrienak 2009koak dira)



ITURRIA: OME

kopuruak gora egiten du. Horietatik guztietatik, 64.000 izan ziren psikiatrian ospitaleratuak. CCOMS eta DREES zentroek 1999 eta 2003 artean egindako inkestaren arabera, populazioaren %8 bere buruaz beste egiten saiatu zen noiz edo noiz. Emaitezkerak erakutsi zuten %2ak suizidiorako arrisku handia zuela. Talde horretan sartzen dira aurreko hilean suizidio-saiakera gauzatu dutenak, edo euren bizitzan zehar suizidatzen saiatu eta azken hilabeteetan ideia hori buruan izan dutenak.


OMEk ohartarazi du, pertsonak pentsamendu etsigarriak ekintza suntsitzailerik bihurtzeko nahikoa energia eta borondate duenean gertatzen direla suizidioetako asko. Dena den, inoiz bere buruaz beste egiten saiatzeak, ez du esan nahi pertsona hori beti arrisku egoeran egongo

denik. Pentsamendu suizidak behin eta berriz azaleratu daitezke, baina ez dira iraunkorrak eta maiz ez dira berriz agertzen.

ERABAKI LIBREA AL DA?

“Bai, suizidioa erabaki askea da, baina askatasun hori baldintzatua dago”, erantzun digu Erkiziak: “Uneoro bizi gara askatasun baldintzatuaren, zirkunstantziak ez ditugu libreki aukeratu, ez dago askatasun absoluturik”. Dioenez, “geure mugak geure gorputza –espazioa– eta denbora –jaio, bizi, hil– dira. Ez gorputza ezta denbora –jaiotzea– ere ez ditugu hasieran aukeratzen. Hala ere, norbera egiten da bere denbora eta gorputzaren jabe. Libre gara hil bitartean gorputzarekin eta denborarekin zer egin erabakitzeko”.

Suizidio-tasa Frantzian 100.000 biztanleko



ITURRIAK: INSERM CÉPI-DC, INSEE

Frantzian suizidio-tasa altuena Bretainiak du, eta Normandia bezalako iparraldeko beste zonalde batzuek. Kopuru altu horien atzean faktore psikologiko, kultural eta batez ere sozio-ekonomikoak daudela pentsatzen bada ere, Bretainiak adina aldaketa ekonomiko jasan dituzten beste zonaldeetan suizidio kopuruak ez du gora egin.

“Ez, nire ustez ez da libreki hartzen den erabakia”, esan digu Nobliak: “Soka lepoan jarritzen duena ez du inork zuzenean behartu, ez du inork bortxatu, bestela hilketa litzatekeelako, baina hala ere... pertsona horren sufrimenduaren atzean faktore asko egon daitezke”. Galderari metafora batekin erantzun dio Iñaki Gonzalezek: “Badira moduak zeharka suizidatzaera bultzatzeko: bederatzi ate itxi diezazkizuket, eta bakarra –suizidioarena– utzi irekita. Ez dizut nik zabaldu, baina besteak itxi dizkizut. Suizidatzeko tendentzia izan dezakeen batek alboan norbait kaltegarria badu, azken pausoa emanarazi diezaioke”.

Erkiziak eztabaida luze baterako eman dezakeen beste adibide bat jarri digu, Giordano Bruno eta Galileo Galilei filosofo italiarren heriotzetan oinarrituta. Zer da suizidioa, zer erailketa? Biek ala biek izan zuten euren patua hautatzeko aukera, horregatik mintzo da Erkizia askatasun baldintzatuaz.

Giordano Brunoren (1548-1600) ustez, Lurrari errotazio-mugimendua aitortzen bazitzaion, ustezko beste mugimendu batzuk baztertu behar ziren, eta ez zegoen motiborik izarrak distantzia berean zeudela edo izarren ingurua mugatua zela pentsatzeko. 1591n Inkisizioak atxilotu egin zuen, eta Bellarmine kardinalak eskatu zion ideia horiei uko egiteko, heresiaz akusatu eta hil egingo zutela bestela. Brunok ez zuen agindutakoa bete eta 1600. urtean bizirik erre zuten. Galileo Galilei (1564-1642) filosofo eta astronomoaren ustez, Kopernikoren teoriari jarraituz, Lurra ez zegoen unibertsoaren erdian. 1633an Inkisizioak atxilotu egin zuen, eta eskatu zion bere ideiei uko egiteko, torturatu eta hil egingo zutela bestela. Bazekien Brunori zer pasa zitzaion, eta bestelako bide bat hautatu zuen: bere lan guztiari uko egitea. Inkisizioak ez zuen Galilei hil, baina 1642ra arte etxean izan zuten preso.

Zoriontasuna. Bakardadea

“Zoriontsu izateko gai den pertsona ez da suizidatuko”, esan digu Gonzalezek. “Arazoa da ez digutela erakutsi zoriontsu izaten. ‘Zer izan nahi duzu handitzen zarenean? Harakina, arotza...’ Ez, nik zoriontsu izan nahi dut. ‘Produktiboa, lehiakorra, izan behar duzu’, besterik ez digute esaten. Gizarte hau gaixo dago, antinaturala da eta, beraz, normala da naturalak ez diren jokabideak hartzea. Gizarte antinaturalak ondorio antinaturalak ditu”.

Gonzalezek dio “amodio-desamodioa eta zoriontasuna ukatzea” beste faktore bat dela: “Bikotea hiltzen da, eta nire buruari ukatzen diot zoriontsu izatea. Ukapen horretatik abiatuta, lekuz kanpo nagoela sentituko dut. Sufritu baino ez dut egiten”. Blas Erkiziaren hitzetan, “bakarrik egoten dakienak, bere burua maitatzen duenak, arrisku gutxiago du suizidatzeko”. Antonio Machado poeta espainiarrak zioena ekarri du gogora: “Lagun hurkoa maite ezazu, baina ez ahaztu beste pertsona bat dela” ⁽¹⁰⁾.

Bakarrik egoten jakitea gauza bat da, isolatua sentitzea bestea. Horren ildotik, Nobliari

(10) Gaiaz gehiago jakiteko: *Zoriontasuna. Nola aurkitu zer den ez dakiguna* (Onintza Irureta. LARRUN, 2007-12-23) (www.argia.com/argia-astekaria/docs/2116/pdf/larrun116.pdf)

galdetu diogu ea berak bakardadea nola ulertzen duen, 1955-1975 arteko baserri mundua hizpide hartuta. “Lehengo eta oraingo bakardadea ez dira konparatzen ahal”, esan digu, “lehen ez zegoen irratirik, telebistarik, telefonorik, kotxerik... Internet ahaztu gabe!”. Frantziako Osasun Publikoaren Institutuak 2009an egindako ikerketaren arabera, laborarien artean suizidio-arriskua exekutiboena baino hiru bider handiagoa da. Faktore nagusiak lanbaldintzak, suizidatzeko bitartekoetara heltzeko erraztasuna eta soldata ezak eragindako isolamendu soziala dira ⁽¹¹⁾.

2006an, bestalde, 145 sendagile zeuden Ipar Euskal Herrian 100.000 biztanlerentzat; orotara 391 (beste 403 mediku berezitu edo espezialista gehitu behar zaizkie). Desoreka handiak daude, ordea, barnealdearen eta kostaldearen artean: kostaldean 163 sendagile zeuden 100.000 biztanlerentzat, eta barnealdean 93 besterik ez ⁽¹²⁾. Halaber, ospitalera joan behar dutenean, barnealdekoak Baionara zuzendu behar dira derrigorrez. Zuberoa, gainera, Paue-ri lotua dago administratiboki. Aipatu faktore guztiak medio, prebentzio lanak egitea –besteren artean, suizidioarena– zailagoa da.

SUIZIDATZEKO MODUAK

2008an 3.457 lagun suizidatu ziren Espainiako Estatuan, INE estatistika institutuak emandako datuen arabera. Xehetasunetan sakondu gabe, aipatuko dugu horietatik 1.723 urkatuta hil zirela, 706 leku altu batetik salto eginda, 354 “pozoia” (analgesikoak, narkotikoak, sendagai eta substantzia biologikoak...) hartuta, 194 su-armekin tirokatuta eta 141 itota. Gaur egun gehien errepikatzen diren suizidatzeko moduak dira horiek, eta datuok Argitxu Nobliak 1976an egindako ikerketaren emaitze-kin bat datozela ikus dezakegu, salbuespenak salbuespen, bai baitago azpimarratzea merezi duen desberdintasun bat. 1955-1975 artean, Lapurdin eta Nafarroa Beherean suizidatu ziren 450 lagunetatik, 160 urkatuta hil ziren, 27 leku altu batetik salto eginda, 97 su-armekin eta 102



MADDI SOROA

“**S**uizidioa erabaki askea da, baina askatasun hori baldintzatua dago. Uneoro bizi gara askatasun baldintzatuan; askatasun absoluturik ez dago”

BLAS ERKIZIA

itota. Datuak hotzean begiratura, salto egin zutenak askoz ere gutxiago direla konturatu gara. Iñaki Gonzalezek eman digu aldea ulertzen lagun gaitzakeen azalpena, bere esperientzian oinarrituta: “Jendea baserrian desberdin hiltzen da. Sokak eta eskopeta eskura dituzte; baina ez dago salto egiteko nahikoa altuera”.

Generoen arteko desberdintasunei dago-kienez, bai INEren baita Nobliaren arabera

(11) *Suicides de paysans: une vérité qui dérange* artikulutik (Béatrice Molle. *Le Journal du Pays Basque*, 2011-01-27)

(12) *Osasun hausturak konpontzeko beharra* artikulutik (Eneko Bidegain. *Berria*, 2006-08-17)



COMERANORTERRADIO.BLOGSPOT.COM

Iñaki Gonzalezek dio prebentzioan gauza asko hobe daitezkeela, baina aurrerapausoak eman direla, ambulanzia psikiatrikoak kasu.

ere, aldeak txikiak dira pozoituta, salto egin da edo itota hil ziren gizon eta emakume kopuruen artean. Aitzitik, askoz ere gizon gehiago suizidatu zen urkatuta eta bereziki su-armekin tiro eginda. Frantziako CépiDC zentroak 2004an argitaratutako datuen arabera, bere buruaz beste egin zuten gizonen %50 urkatuta hil ziren, eta %19 su-armekin. Emakumeen kasuan, urkatuta eta sendagaiak hartuta hil ziren %60, oso kopuru paretuan.

Ezkatuko suizidioak

Ageriko suizidioez gain, badira ezkutuan gertzen direnak ere, hainbat adituk *mozorrotutako suizidio* definitu dituztenak. Horien artean daude, esaterako, *autozidioa* edo auto-gidariak hautatzen duten bidea, gertatutakoa nahasgarriagoa izateko xedearekin; ala *droga-menpekotasun suizidak*, substantziak modu kronikoan kontsumitzen dituzten pertsonen kasuetan. Iñaki Gonzalezek azaldu digunez, istripu bat gertatu den lekura joan eta zerbait

Iñaki Gonzalez: “Umoreak babes gisa balio du”

“Umoreak pisu handia du larrialdi zerbitzuetan lanean gabiltzanontzat. Gauza hain gizatiarri gizatasuna kentzeak babes gisa balio du. Karga emozionala kendu behar diozu, han egotetik ez zenukeelako izango bestela. Hildakoaren familiarekin zaudenean oso zaila da burua hotz mantentzea. Zerbait mekanikoa balitz bezala bizi behar duzu, emozioak ahal den neurrian alboratuz. Hori egiteko gomendatzen digute, gainera. Bestalde, gertatutakoa azkar ahazten dugu. Askotan, etxera heldu eta ez dakit zenbat lagun artatu ditudan. Aurpegiak berehala ahazten ditut. Autodefentsa mentala da”.

Suizidioa eta legea

Legedi batzuek suizidioa delitutzat jotzen dute, baina ez du zigorrik jasotzen, inor zigortu nahi izanez gero, hildakoa bera zigortu beharko litzatekeelako. Eta hori, gaur gaurkoz, inork egitekotan, Jainkoak besterik ezin du egin.

José Luis Orella unibertsitateko katedradunaren iritziz, suizidioa baloratzean kontuan izan beharra dago “legeak ez duela debekatzen”⁽¹³⁾. Bestalde, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak dio bertako antolamendu juridikoan ez dela “suizidatzeko eskubidea” existitzen. Orellaren hitzetan, “suizidioa norberaren bizitza eta heriotzaren gaineko askapen ekintza da. Eta ekintza hori gauzatzea *agere licere*aren manifestazioa da, norberaren bizitzaren pribazioa edo heriotzaren onarpena legeak debekatzen ez duen ekintza den heinean. Hala ere, suizidioaren hautua buru-gaitasun osoz hartzen den kasuetan, inor ekintza hori eragozten saiaturko balitz, legeak koakzio-delitu gisa har dezake”. Suizidioa eragotzi duen pertsonak zigorra jasoko luke, “legez horretarako eskumenik izan gabe, beste pertsona bati bortxaz eragotziko balio lege debekatu gabe dagoen zerbait egiten” (Kode Penal, 172. artikulua). Edozein kasutan, beste pertsona bat suizidatzera bultzatzea, edo suizidioa (zein eutanasia) prestatzen laguntzea delituak

dira, zigor desberdina jasotzen duten arren. (Kode Penal, 143. artikulua)

Suizidioarekiko hirugarren pertsonen erlazioa nahasi eta eztabaidagarria da. Izan ere, suizidio saiakera eraldi baten, egoera depresibo oso larri baten edo antzeko egoera batzuen ondorio denean, ekintza hori ez eragozteak, horretarako aukera dagoenean, sorospen-eginbeharra ez betetzea ekar leza ke. Eta hori, hainbat legedik delitu gisa hartzen du.

Bizitza-polizak

Espainiako eta Frantziako aseguru-etxe gehienek estaltzen dituzte suizidioak, baldin eta poliza kontratatu zen momentutik gutxienez urtebete pasa bada. Datuek erakusten dutenez, bizitza-poliza sinatzean, pertsona horrek bere buruaz beste egiteko erabakia hartua badu, ez du urtebete itxarongo. Bizitza-poliza kontratatzen duenak formulario bat betetzen du; bere osasun-egoerari buruzko galderak erantzun beharko ditu, suizidioaren gaia ukitzen dituztenak tartean. Kontratatzaileak gezurra esan dezake, baina aseguru-etxeek Gizarte Segurantzara deitu eta erantzunak egiaztatzen dituzte.

(13) *Las razones sociales del suicidio* artikuluan (Gara, 2011-04-05).

arraroa pasa dela sumatuz gero, ertzainei deitzen diete zuzenean, haiek erabaki dezaten heriotza nola eman den. Trafiko-istripuena kasu berezia dela dio: “Demagun albiste oso txarra jaso duzula. Autoa hartu duzu, baina negarrez ari zara, ez duzu ongi ikusten, zure kontzientzia gradua baxuagoa da, eta azkarra go gidatzea erabaki duzu, bidetik ateratzea... ez duzu hil nahi, baina ez duzu ezer egiten heriotza saihesteko. Gure lanaren parte bat hori da: kontzientzia maila galdu duen pertso-

nari egoera iraultzen laguntzea, sendagaien bidez, esaterako”.

BELDURRA

Argitxu Nobliak duela 35 urte aurkeztu zuen suizidioari buruzko azterketa. Orduz geroztik berak egindako lanari inork ez diola jarraipenik eman esan digu: “Zaila da. Hilak hil dira, hori pasa da. Gaia ez da politikoki zuzena. Urtean behin, suizidioaren prebentziorako

nazioarteko egunean (irailaren 10ean), hedabideek erreportaje eta datuak plazaratzen dituzte, baina gainontzekoan...". Kalean ere, gaiaz aritzeko nolabaiteko beldur edo erreparoa dagoela dio: "Jendeak lehen baino gehiago hitz egiten du, baina ez da gustuko gaia. Bakoitzak berarentzat hartzen du. 'Berari gertatu bazaio, zergatik niri ez?'. Konplexua da".

Iñaki Gonzalezek uste du ez gaude-la prest suizidioari eta oro har heriotzari aurre egiteko: "Dirua zer den ez dakigun bezala, zer den jakitea interesatzen ez delako, heriotzak nola funtzionatzen duen jakitea ere ez da interesatzen. Mendetan zehar, heriotzaren gaineko kontrola izuaren bidez bermatu dute. Beldur gara gaiaz hitz egiteko ere. Lotsa ematen du, sexua baino okerragoa da ia. Heriotzaz hitz egiten baduzu, arrarotzat joko zaituzte, jendeak gaixo zaudela pentsatzen du. Gure erlijioak dio hil ondoren libratu egiten garela. Nola da posible heriotza ez onartzea, gure kulturak esaten duenean justu orduantxe datorrela onena?".

Ume zela irakurri zuen ipuin bateko pasartea iltzaturik du Gonzalezek: "Gogoan ez dudana kultura bateko kideek, komunitateko norbait hiltzean omenaldi-festa bat egiten zuten. Liburu baten amaierara heltzearekin alderatzen zuten heriotza. Eleberria irakurtzen ari zarenean gozatu egiten duzu; eta bukaerara iristean ez zara negarrez hasten, apalean –oroi-tzapenen txokoan– gordetzen duzu, jakin arren ziurrenik ez duzula berriro irakurriko. Hildakoarekin gauza bera gertatzen da, oroi-tzapenen txokoan gorde eta haren alboan zoriontsu izan zarela gogoratzen duzu. Baina hemen dolua eta abar ditugu. Hala ikasi dugu, bizitza eta heriotzarekin kontrolatzen gaitu erlijioak; heriotzari beldur diogu". Nobliaren hitzetan ere, "katolizismoak ez du suizidioa onartzen lagundu; bekatua dela, erruduntasuna...". Gonzalezentzat, oraindik ere "erlijioak guztiongan du pisua". Dena desmitifikatu dugu, salbu eta suizidioa.



BORIZELA.BLOGSPOT.COM

LARRUN pentsamendu aldizkaria **ARGIArekin batera banatzen da**

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria

Posta Elektronikoa: larrun@argia.com

Telefona: 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L.

Informatika: Iametza Interaktiboa.

ARGIAko 2.274. zenbakiarekin banatua, 2011ko apirilaren 24an